

Ahazturiko gerrak eta gosea Afrikan

Afrikako hamabi estatu ehundaka mila pertsona hil diren gerra zibiletan murgildurik daude gaur egun. Gerrak eta hildakoek, ordea, nazioarteko axolagabekeria eta Nazio Batuen Erakundearena (NBE) berarena ere jaso dute. Somalia, Hego Afrika, Sudan,

Djibuti, Moçambique, Rwanda, Burundi, Liberia, Mali, Etiopia, Sierra Leone eta Niger gerran bizi dira. Gehienek iturburua tribuen arteko borrokak, etnikoak dira, baina badaude ideologia politikoak (Moçambique) eta erlijioak (Sudan) eragindakoak ere.

Ehundaka mila hildako, baina ez da gerra hildakoak eragiten dituen faktore bakarra Afrikan. Lehortek eta goseak gerrak beste pertsona hil dituzte urteotan, nazioarteko begiek beste lekuetara begiratzen duten bitartean.

Gerra etniko, politiko eta erlijiosoak

Azken urteotan ehundaka mila pertsona hil dira hamabi estatutako gerra zibiletan

KOLDO ALDABE / DONOSTIA

«Non daude Nazio Batuek, Europako Komunitatea, Estatu Batuak eta munduko beste lekuek arma gatazkei irtenbidea emateko beti gertu dagoen beste edozein?» galdetzen dute egunero afrikarrek, tragedia honetan ere alde batera utzi dituztela uste dutenak. Gerra hauekiko axolagabekeriak zeharo kontrastatzen du, EEBBek eta EK-k adibidez Afrikako herrietara eraman nahi duten prozesu demokratikoekin. Batzuetan gainera, prozesu hori behartuta sartu nahi izan dute, horrelakorik egiten ez duenari zigor ekonomiko eta diplomatikoak ezartzeko mehatxu eginez.

Moçambique Afrikako gerra zibil luzeen eta odoltsuenaren eszenatokia da: hasi Portugaletik independentzia jaso zuenean hasi zen, 1975ean, eta dagoeneko milioi erditik gora pertsona hil dira. Gerra honetako protagonistak orain arte marxista zen Moçambiqueko Askapenerako Frontea (FRELIMO) eta Mendebaldeko sistemak bereganatu nahi duen Moçambiqueko Erresistentzia Nazionala (RENAMO) dira. Gatazka honi irtenbidea emateko bideetan dabilazala dirudi, Eliza Katolikoaren artekaritzari esker, baina bakea lortzeko oraindik bide luzea geratzen dela uste da.

Somalian, berriaz, Hauye etniako bi klan iragan azaroan borrokan hasi zirenetik 15.000 pertsona inguru hil dira eta beste 10.000 zauritu. Mohamed Siad Barre erregearen aurkako borroketan hauieak iparraldeko Isa etniaren aliatu izan ziren. Siad Barre Marehan etniakoa zen eta azkenik aurreko bien eskutik erori zen iragan urteko hasieran. Baina isatarrek eta hauiey ez zuten akordiorik lortu Gobernu osoatzeko. Horregatik, isatarrek iparraldeko lurraldearen independentzia aldarrikatu zuten.

Arazoak ez ziren hor amaitu, hauietarren bi klan, bata Ali Mahdi Moahmed behin-behineko lehendakariarena eta Mohamed Fara Haidad-ena, Barreren erorketa bultzatu zuen taldeko buruzagiarena bestea, Mogadisho hiriburuan gerra zibilean sartu bait ziren.

Hori gutxi balitz, duela aste batzuk Barreren jarraitzaileek osaturiko Somaliako Fronte Nazionala ere gerran sartu bait da,



buruzagitzatik kendutako lehendakariari boterea itzultzeko.

Antzeko ezaugarriak dituzte baita ere **Djibutin** isatarrek Afar etniakoekin dituzten borrokek eta duela zenbait urtetik hona Hutu eta Tutsi etniek **Burundi** eta **Rwanda**n dituztenek ere. Ez dago hildakoen kopuru zehatzik, baina huts egiteko beldurrik gabe esan daiteke dozenaka mila direla. Burundin adibidez, 1988an izandako borroketan, datu ofizialen arabera 5.000 inguru hutu hil ziren, beste iturri batzuen arabera 50.000tik gora izan zirela

bazioten ere. Herri honetan duela gutxi **PALIPHEUTU** jaio zen Tutsi etniaren (populazioaren % 15) esku dagoen Gobernuari aurre egiteko.

Rwandan Hutu etniaren (populazioaren % 75) esku dago Gobernu. 1990etik Gobernuko Armada eta Rwandako Fronte Abertzalearena (Tutsi etniako Armada) aurrez aurre daude.

Hego Afrikan hiri handietako auzune beltzetan benetako gerra zibila dago aspaldidanik. Azken zortzi urteotan 12.000tik gora pertsona hil dira auzune hauetako

biolentziak eraginda. Herri beltzaren buruzagitzaren jabe egitea helburu duen gerran Afrikako Kongresu Nazionala eta Inkhata taldeko jarraitzaileak daude aurrez aurre. ANCKoak Xhosa etniakoak dira eta Inkhatakoak, berriaz, Zulu etniakoak. Baina xhosa eta zuluen arteko enfrontamenduez gain, zuriek osatutako talde ultraeskuindarren biolentzia ere aipagarria da, apartheid sisteman zituzten pribilegioak galtzeko beldur direnena.

Liberian, berriaz, Ghio eta Mano etniak daude gerra zibilean

Gerra hauekiko axolagabekeriak zeharo kontrastatzen du, EEBBek eta EK-k Afrikako herrietara eraman nahi duten prozesu demokratikoekin. Batzuetan gainera, prozesu hori behartuta sartu nahi izan dute.

Mandingo eta Kran etniakoen aurka. Borrokak 1989ko abenduan hasi ziren Samuel Doe-ren (Kran) erregimenaren aurkako kolpe saioarekin. Saioak huts egin zuen eta Doek Armada bidali zuen ghio eta manotarrak bizi diren lurraldeetara, eta gerra zibila eragin. Dagoeneko bost bake hitzarmen sinatu dira, baina bakar batek berak ere ez du balio izan gerra gerarazteko.

Sudanen 1983tik daude gerra zibiletan. Gerraren arrazoiak orduko lehendakariak, Gafar Numeiri, lurralde osorako eginiko lege islamiarra izan zen, hegoaldeko bi milioi biztanleak katolikoak edo animistak direla kontutan hartu gabe. Neurri honen ondorioz, John Garang jeneral kristauak Armada utzi eta hegoaldera joan zen Sudaneko Herriko Askapenerako Armada (SPLA) osatzeko. Duela egun batzuk Gobernuak Armada bidali zuen hegoaldera eta SPLAK kontrolatutako zenbait herri eskuratu ditu.

Etiopian iragan urteko maiatzan eman zioten amaiera 30 urteko gerra zibilari, baina orain beste bati ekin diote, Oromo etniakoak beraiek bizi diren lurraldeen independentziagatik borrokan hasi direlako.

Mali eta Niger ere, munduak batere berri ez duen motako gerra zibiletan murgildurik daude. Tuareg herriak bere lurraldeen independentziagatik borrokan ari dira, bi estatu hauetako lurralde zatiakin estatu bat osatu asmoz, eta gerra hauetan konponbide zaila dakusate begirale guztiek.

Sierra Leonen ere duela urtebete Liberian mugen inguruan gerra gogor bat dago. Gerra honek hiru estatu barneratzen ditu, Sierra Leonek **Ginearen** laguntza jasotzen bait du gerrilari liberiarren kontrako borrokan.